GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

6939

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 19koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao-Donostia lineako Usansolo-Lemoa tarteko trenbide-pasaguneak (Mendizurkoak) kendu eta trenbidea ixteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrera ateratzeko dena.

2008ko uztailaren 11ko Ebazpenaren bidez, Garraio Azpiegituraren zuzendariak Bilbao-Donostia lineako Usansolo-Lemoa tartean trenbide-pasaguneak (Mendizurkoak) kendu eta trenbidea ixteko eraikuntza-proiektua onartu zuen.

Bilbao-Donostia lineako Usansolo-Lemoa tartean trenbide-pasaguneak (Mendizurkoak) kendu eta trenbidea ixteko eraikuntza-proiektuan Bilbao-Donostia trenbidearen barruan Bediako udalerrian Mendizurko trenbide-pasagunea (12+704 kp-an) eta Mendizurko oinezkoen pasabidea (12+852 kp-an) kentzeko eta trenbidea ixteko jarduketak eta itxitura horrek berekin dakartzan bestelakoak (drainadura eta ingurumen arlokoak) xehe-xehe zehazten ditu. Gainera, trenbide-linean dauden eta egun erabiltzen ez diren zenbait elementuren eraispena ere sartuta dago proiektuan.

Horiek horrela, Usansolotik Lemoara doan tartean, Bedia udalerrian, Galdakaoko mugatik hasi eta Sakarbiko trenbide-pasagunera arte egin beharreko lanak honakoak dira: trenbide-pasaguneak kendu, trenbidea itxi (horren ondorioz, drainadurarako eta fauna igarotzeko behar diren obrak barne) eta tarte horretan dauden eta erabiltzen ez diren elementuak eraitsi.

Erasandako lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta partzela-planoak datoz.

Organo honen ardura da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko izapideak egin eta nahitaezko desjabetze-jardunbidea ebaztea, hala ezartzen baitute Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 7.g eta 10.1.h artikuluak, eta ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 16.1.a artikuluak.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluaren arabera, trenbide-linea berriak

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

6939

RESOLUCIÓN de 19 de noviembre de 2008, de la Directora de Infraestructura del Transporte, por la que se somete a información pública la relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto de construcción de la supresión de pasos a nivel y cierre de vía en el tramo Usansolo-Lemoa de la línea Bilbao-Donostia. Paso a nivel de Mendizur».

Mediante Resolución de 11 de julio de 2008, de la Directora de Infraestructura del Transporte, se aprobó definitivamente el «Proyecto de Construcción de la Supresión de Pasos a Nivel y Cierre de vía en el Tramo Usansolo-Lemoa de la línea Bilbao-Donostia. Paso a Nivel de Mendizur».

El «Proyecto de Construcción de la Supresión de Pasos a Nivel y Cierre de vía en el Tramo Usansolo-Lemoa de la línea Bilbao-Donostia. Paso a Nivel de Mendizur» define de forma detallada las actuaciones necesarias para la supresión de los Pasos a Nivel Mendizur (PK 12+704) y Mendizur peatonal (PK 12+852) de la línea Bilbao-Donostia dentro del Término Municipal de Bedia, así como el cerramiento de la vía y las actuaciones que el cierre implica, tanto a nivel de drenaje como a nivel medioambiental. Además se incluyen también las demoliciones de aquellos elementos de la línea ferroviaria que, actualmente, están fuera de servicio.

Las actuaciones que se han de desarrollar dentro del tramo entre Usansolo y Lemoa en el ámbito del Término Municipal de Bedia entre el límite con el término municipal de Galdakao y las proximidades del Paso a Nivel Sakarbi se desglosan en: supresión de los Pasos a Nivel, cerramiento de la vía (incluyendo aquéllas que derivan de adaptar el drenaje y facilitar el paso de la fauna como consecuencia de esta situación) y la demolición de aquéllos elementos que estén presentes en el tramo y que carecen de utilidad.

A efectos de obtención de los terrenos y de la gestión de los bienes y derechos afectados, el Proyecto contiene la identificación pormenorizada de los mismos mediante la relación y planos parcelarios.

Este órgano es competente para la adopción de los actos de tramitación y resolución del procedimiento de expropiación forzosa para la realización de las obras de infraestructura ferroviaria de competencia de la Comunidad Autónoma, según lo dispuesto en el artículo 7.g del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, en relación al artículo 10.1.h del mismo texto y al artículo 16.1.a del Decreto 8/2005, de 27 de junio.

A tenor de lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario, la

jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta badatoz, nahitaezko desjabetzeko eskakizunen eta jardunbidearen ondorioetarako, onespenak berekin dakar, proiektua bera eta horren gaineko aldaketak, herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Nolanahi ere den, proiektuaren onespenak berekin dakarren arren erasandako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ezartzen dutenez, ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrera atera behar da, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan daitezen, zerrendan okerrik badago, zuzentzeko, eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

EBATZI DUT:

Bilbao-Donostia lineako Usansolo-Lemoa tarteko trenbide-pasaguneak (Mendizurkoak) kendu eta trenbidea ixteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrera ateratzea, ebazpen hau azkena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikuluak eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Garraio eta Herri Lan Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean.

Aipatu epean, erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda Bediako udaletxeko iragarkien oholean egongo da edonork ikusteko.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 19a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE.

aprobación de los proyectos de establecimiento de nuevas líneas o de ampliación y mejora de las existentes que contengan la determinación de los bienes que se considera preciso ocupar supone, a efectos de los requisitos y del procedimiento de expropiación forzosa, la declaración de utilidad pública o interés social del proyecto y de sus modificaciones, y la urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados identificados en los mismos.

No obstante, aunque se entienda que la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados se encuentra implícita en la aprobación del Proyecto, los artículos 17.2, 18 y 19.2 de la Ley de Expropiación Forzosa establecen la obligación de formular la relación descriptiva de dichos bienes y derechos y de someterla al trámite de información pública, a fin de que puedan formularse alegaciones y aportar datos en orden a la rectificación de los posibles errores de la misma y a la correcta determinación de los interesados.

Por lo cual, vistas las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Someter al trámite de información pública la adjunta relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto de Construcción de la Supresión de Pasos a Nivel y Cierre de vía en el Tramo Usansolo-Lemoa de la línea Bilbao-Donostia. Paso a Nivel de Mendizur», al objeto de que durante el plazo de quince (15) días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la última publicación de la presente Resolución, puedan presentarse alegaciones a los efectos de subsanar los posibles errores de la misma, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.2 y concordantes de la Ley de Expropiación Forzosa, dirigiéndose para ello a la Dirección de Infraestructura del Transporte, Departamento de Transportes y Obras Públicas, calle Donostia-San Sebastián n.º 1, Vitoria-Gasteiz.

Durante el referido plazo, la relación de bienes y derechos quedará asimismo expuesta en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bedia.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 2008.

La Directora de Infraestructura de Transporte,
MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE.

BILBAO-DONOSTIA LINEAKO USANSOLO-LEMOA TARTEKO TRENBIDE-PASAGUNEAK (MENDIZURKOAK) KENDU ETA TRENBIDEA IXTEKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA

PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LA SUPRESIÓN DE LOS PASOS A NIVEL Y CIERRE DE VÍA EN EL TRAMO USANSOLO-LEMOA DE LA LÍNEA BILBAO-DONOSTIA. PASO A NIVEL DE MENDIZUR.

BEDIAKO UDALERRIA / *TÉRMINO MUNICIPAL DE BEDIA*

Finka zk. *N.º de finca*	Katastroko erref. *Ref. catastral*		Jabea *Propietario*	Eragin mota *Tipo de afección*		Izaera *Naturaleza*
	Poligonoa *Políg.*	Lursaila *Parc.*		Okupazio iraunkorra *Ocupación permanente*	Aldi baterako okupazioa *Ocupación temporal*	
1	4	92	Francisco Sestafe Arregi	---	625,00	Mendia-ostozabalak *Monte-frondosas*
2	4	31	Félix Arteabaro Agirre	263,05	462,80	Zelaia/*Pradera*
3	4	34	Mercedes Bengoechea Arana	387,40	619,90	Soroa/*Cultivo*
4	5	01	Juan Arteabaro Agirre	128,30	147,80	Zelaia/*Pradera*
5	4	29b	Félix Arteabaro Agirre	2,60	52,60	Soroa/*Cultivo*
6	4	29c	Félix Arteabaro Agirre	40,80	355	Larrea/*Pastizal*
7	4	91	Félix Arteabaro Agirre	45,80	120,60	Larrea/*Pastizal*
8	5	241	Juan Arteabaro Agirre	---	727,90	Larrea/*Pastizal*